



Arartekoaren 2020R-1993-18 Ebazpena, 2020ko urriaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio iker dezala zergatik amaitu zuen datu pertsonalak zituen idatzi batek garatutako administrazio-prozeduratik kanpoko pertsonen esku, azter ditzala bere prozedurak eta jar ditzala abian antzeko egoerak gerta ez daitezen beharrezkoak diren protokoloak eta tresnak.

Aurrekariak

1. Pertsona bat Arartekoarengana joan zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jarduera bat jakinarazteko, harekin ados ez zegoelako.

Adierazi zuenez, une jakin batean mezu elektronikoko bat bidali zion Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako arduradunetako bati, elkarrizketa bat hitzartzeko, lan egiten zuen ikastetxeari buruzko hainbat gai aztertu ahal izateko, bere ustez irregulartasunak izan ahal baitziren. Mezu hori kontu pribatu batetik bidali zen.

Bi egun geroago, bide beretik erantzun bat jaso zuen, non ez baitzen elkarrizketa hori aipatzen, eta arduradun horrek eskura zituen informazioa edo zantzuak bidaltzeko eskatu zion eta horretarako idatzi bat aurkez zezala erregistro ofizial batean eta, bertan, bere identifikazio-datuak jaso zituela.

Kexagileak ez zuen idatzi hori egin; izan ere, erakunde horri jakinarazi zionez, sinetsita zegoen eskatu zioten bezala eginez gero, ikastetxean arazoak izango zituela.

Aste batzuk geroago, ikastetxeko irakasleen klaustroa egiten zen bitartean, Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren idatzi ofizial baten kopia agertu zen, Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari zuzendua. Idatzi horretan, pertsona horrek bidalitako posta elektronikoa transkribatzen zen, eta haren izen-abizenak agertzen ziren, bi aldiz.

Horrek tentsio handia sortu zuen, eta kexagileak mezu elektronikoko bat jaso zuen, ikastetxeko langile guztiei bidalia, antza denez. Mezu horretan, bere jarrera berriz aztertzeko eskatu zitzaion, eta, besteak beste, honako hau esan zitzaion: *“No creo que esta putada que nos has hecho pueda hacerte sentir bien”*.

Pertsona horrek kexa bat aurkeztu zuen gertakari horiengatik, eta Langileriaren Kudeaketa zuzendariak erantzun zion, prozedura osoa amaitu ondoren. Gutun baten bidez, adierazi zion hasierako mezu elektronikokoak bazituela salaketa gisa tratatu eta izapidetzeko behar ziren datu guztiak, eta, beraz, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzara bidali zutela, Hezkuntza Ikuskaritzaren zein hezkuntza-administrazioaren beraren hainbat jarduera egin zituzten.





2. Gertakariak ikusita, Arartekoak idatzi bat bidali zion Hezkuntza Sailari, galdetzeko ea hezkuntza-administrazioak zergatik aldatu zuen, itxuraz, posta elektronikoaren izapidetzeari buruzko iritzia, eta nabarmendu zuen posta hori ez zela bidali kontu korporatibotik, eta, beraz, mezuan bertan jasotako datuak izan ezik, ez zela egiaztatu egilea zela zioen pertsonaren nortasuna.

Era berean, administrazio-prozeduran egindako jarduketan zehaztapena ezagutzea eskatu zen, eta aurreratu zen jarduketa horiek 39/2015 Legearen³ 55. artikuluan aurreikusitako informazio-aldian edo aurretiazko jarduketetan sartzen baziren, haien garapenak ez zuela eskatzen datu pertsonalik agerraraztea.

Azkenik, erakunde honek funtsezkotzat jotzen zuen jakitea Langileriaren Kudeaketako zuzendariak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzara bidali zuen idatziak izan zuen ibilbidea eta zergatik amaitu zuen ikastetxeko irakasleen esku, egoera hori azaltzen zuen justifikaziorik ote zegoen aztertzeko xedearekin.

3. Hezkuntza Sailaren erantzuna Hezkuntza Ikuskaritzaren txosten bat bidaltzea izan zen, organo horren esku-hartzeari buruzkoa.

Dokumentuak adierazten zuen Langileriaren Kudeaketa zuzendariak idatzi bat bidali ziola Bizkaiko lurralde-ordezkaritari, eta, ondoren, Bizkaiko Ikuskaritzako Lurralde Burutzak txosten bat eskatu zuela honi buruz: *“Zentroan gertatzen ari diren egoera larriei buruzko salaketa (...)”* . Eskaera hori jakinarazpen baten bitartez gauzatu zen eta jakinarazpen horri Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren idatzia erantsi zitzaion.

Jarraian, honako hauek laburbildu zituen: egindako jarduketa, ustezko irregulartasun gisa salatutako gertakarien azterketatik ateratako ondorio orokorrak eta hezkuntza-administrazioari helarazi zitzaizkion proposamenak.

Erakunde honek eskaturiko datuei dagokienez, bidalitako dokumentuan adierazten zen Hezkuntza Ikuskaritza ikastetxeko zuzendariari zuzendu zitzaiola eta baieztatzen zen ez ziola eman Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren idatziaren kopia. Bestalde, jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko eginkizunen barruan kokatzen zituen.

Hezkuntza-administrazioak, halaber, Hezkuntza Ikuskaritzak egindako bi txostenen kopia bat bidali zuen, horren guztiaren emaitza gisa; horietako bigarrena, lehenengoaren hainbat atal argitze aldera Langileriaren Kudeaketa zuzendariak egindako eskaera bati erantzuteko egin zen. Arartekoak ez du bi dokumentu horien edukia aztertuko, ez baitira kexaren xede, ebazpen honen ondorengo ataletan zehaztuko diren erreferentzia batzuetatik harago.

³ 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.





4. Arartekoaren ustez, Hezkuntza Sailaren erantzunak ez zion, funtsean, erakunde horrek bere lehen eskaeran helarazi zion planteamenduari erantzuten.

Izan ere, ez zuen zehazten zergatik hartu zuen kontuan kontu pribatu batetik administrazioaren jarraibideak urratuz bidalitako mezu elektronikoko bat, ez eta zergatik ez zitzaion egileari inolako berririk eman ere.

Era berean, ez zuen kalifikatzen egindako jarduketan izaera administrazio-prozeduraren ikuspegitik, ez eta kexagilearen identifikazio-datuak aipatu izanaren justifikazioa ere.

Amaitzeko, ez ziren helarazi Langileriaren Kudeaketa zuzendariak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari igorritako idatziak izandako ibilbideari buruzko daturik eta idatzi horrek ikastetxeko irakasleen esku amaitu izanaren arrazoia; era beren, ezin da jakin Hezkuntza Sailak gai horri buruzko jarraipenik edo ikerketarik egin duen, edo ba al zegoen dokumentua beste pertsona batzuei entregatzea baimentzen zuen arrazoirik.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau harremanetan jarri zen hezkuntza-administrazioarekin gogoeta horiek helarazteko eta alde batera utzitako alderdiei buruzko eskaera errepikatzeko.

5. Erantzuna helarazteko emandako epea ez betetzeak eragindako errekerimendu gehigarri baten ondoren, Arartekoak txosten bat jaso zuen, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan garatutako gertakarien zatira mugatuta eskusiboki.

Idatzi horretan, lurralde ordezkariek zioen Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ofizio bat jaso zuela, eta ofizio horretan agertzen zela kexagilea nor zen, eta, bertan jasotako jarraibideak betetz, Hezkuntzako Lurralde Ikuskaritzari bidali ziola.

Halaber, adierazi zuen espedientean ez dagoela jasota ordezkaritza horrek ikastetxeko kideren bati esan zionik nor zen pertsona hori; izan ere, bere ustez, inguruabar hori jakinaraztea ez zen beharrezkoa eskaturiko ikerketa egiteko.

Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunari dagokionez, adierazi zuen arduraren eta isiltasuna izan zirela nagusi, eta ikuskatzaile arduradunak ukatu egin zuela ikastetxeko klaustroari jakinarazi zionik irregulartasunak egon zirela adierazi zuen pertsona nor zen; hala, ezin da adierazi espedientean jasotzen den dokumentazioaren kontrakorik.

Era berean, adierazi zuen Hezkuntza Ikuskaritzari ezin zitzaioela eskatu jatorria beste administrazio-zerbitzu batean izan duen informazio edo dokumentu baten ibilbidea arrazoitu zezala, baina ez zuen zehaztu Lurralde Ordezkaritzari berari edo Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzari buruzkoa zen.





6. Beste behin ere egiaztatu zenez jasotako dokumentuak ez zituela jasotzen erakunde honek aurreko eskaeretan aipatu zituen gaiak, Arartekoak beste idatzi bat bidali zion Hezkuntza Sailari. Bertan, aurreko eskaeretan jasotako gogoetak errepikatu eta zabaldu ostean, honela zehaztu zuen bere eskaera:
- Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak zergatik aldatu zuen kexagileari berriaz jakinarazi zion irizpidea. Horren arabera, kontu pribatu batetik bidalitako mezu elektronikoa, ikastetxe batean ustezko irregulartasun batzuk aztertzeko hitzordua eskatzen zuena, ezin zen izapidetu, harik eta identifikazio-datuak dituen eskaera formal batean aurkeztu arte.
 - Zergatik ez zitzaion jakinarazi kexagileari mezu elektroniko hori izapidetu zela, gai horri buruz aurrez berriaz eman zitzaion erantzuna ezeztatuz.
 - Zergatik aipatu ziren espedienteak abiarazteko idatzian kexagilearen identifikazio-datuak.
 - Ikastetxeko ustezko irregulartasunei lotuta, nolakoak ziren erreferentziako ikuskatzaileak egindako jardunak.
 - Aurrez azaldutako jardunen justifikazio juridikoa.
 - Hezkuntza Sailak azterketarik edo jarraipenik egin duen edo egingo duen Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak prestatutako idatziaren ibilbideari buruz, ustezko irregulartasunak ikertzeaz arduratutako Hezkuntza ikuskatzaileak jaso arte; horrekin batera, zein izan daitekeen idatzi hori ikastetxeko irakasleen esku uzteko unea, arrazoia edo pertsona.
7. Azkenik, Hezkuntza Sailak beste txosten baten bidez erantzun du. Txosten horretan aipatzen da, batetik, organo eskudunak legezko aukera duela ofiziozko prozedura bat abiarazteko, salaketa bidez egitate batzuen berri izan duenean (39/2015 Legearen 58. artikulua), eta, bestetik, aurretiazko jarduketak egiteko ahalmena duela, kasu zehatzaren inguruabarren berri izateko eta prozedura hastea komeni den ala ez aztertzeko (lege-testu bereko 55. artikulua).

Esparru horretan, dokumentuak definitzen duenaren arabera, kexagileak egindako adierazpenen berri eman zen, dagozkion eginbideak egin zitezkeen eta, hala badagokio, dagozkion ikerketa ireki zedin, diligentzian eta isilpekotasunean oinarrituriko esku-hartze batean.

Ondoren, nabarmendu du Arartekoak bidalitako azken eskaera jaso ondoren, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak Bizkaiko Hezkuntzako lurralde-ordetzariari eskatu ziola ikerketaren hasierako dokumentuaren ibilbidearen berri eman zezala eta Hezkuntza Ikuskaritzak egindako jardueren izaera zehaztu zezala.





Bi gai horietako lehenengoari dagokionez, Hezkuntza Sailak ondorioztatu du, emandako informazioa eta eskuragarri dauden baliabideak ikusita, ezin duela identifikatu pertsona, momentua edo kexan aztertutako egoera eragin zuen idatziak ikerturiko ikastetxeko irakasleen esku amaitu izanaren arrazoia.

Dena den, aipatzen den informazioaren arabera, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren idatzia, kexagilearen identifikazio-datuak jasotzen zituena, Lurralde Ordezkaritzan sartu zen eta Hezkuntza Ikuskaritzara bideratu zen. Eta horri dagokionez, zenbait txostenen edukira jotzen du, horietako batzuk ez baitzaizkio lehenago erakunde honi helarazi. Txosten horietan adierazten da ikuskatzaileak ez ziola idatzia helarazi dagokion ikastetxeko zuzendaritzari, ez eta hezkuntza-ikuskaritzatik kanpoko pertsoneri ere, eta honako hau argudiatzen da: *“Hezkuntzako Ikuskatzaileak eta, beraz, izenpetzen duen ikuskatzaileak, ez du inongo zerikusirik izan aipaturiko idatziaren filtrazioarekin (...) irakasleen eskuetan bukatu zuen idatzi horrek”*

Azkenik, hezkuntza-administrazioak berretsi egin du Ikuskaritzak araudiari esleitzen dizkion eginkizunen aipamena eta honako hau adierazi du: *“Ikuskatzailetzako lurralde-buruzagitzatik jasotako eskaeraren ondorioz, (...) ikastetxeko erreferentziazko ikuskatzaileak txosten bat igorri zion Hezkuntzako Bizkaiko lurralde-ordezkaritari (...). Bertan, ikuskatzailearen jarduketan emaitza azaldu zuen, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren idazkian zehaztutako ustezko irregulartasunei buruzko proposamenak egin zituen.”*

Gogoetak

1. Espediente honen izapidetzean zehar, erakunde honek kexa hau eragin duten egoeren tratamenduari buruz hitz egin du, eta Hezkuntza Sailari adierazi dio beharrezkoa dela beren kudeaketa-esparruan antzeko egitateak planteatzen dituzten administrazioen kasuan, dauden inguruabarrei eta gauzatzen dituzten jarduketei dagokienez, zaindu ditzatela eta arretaz ibil daitezela.

Illo horretan, Arartekoaren ustez, ezinbestekoa da administrazio horiek prozedurak izapidetzea eta bidezkoak diren neurriak hartzea, ez bakarrik araudian ezarritakoa zorrotz betez, bai eta ahalik eta arreta handiena aplikatuz eta juridikoki babes daitezkeen eskubide eta ondasun guztiak arretaz aztertuz ere; kontuan izanda hartzen diren erabakiek ondorio garrantzitsuak ekar ditzaketela, bai inplikaturako pertsonentzat, bai horiek garatzen diren lantokientzat (bereziki, kasu honetan bezala, ikastetxeak).

Kontua ez da, inola ere, hezkuntza-administrazioak irregulartasun bat izan daitezkeen egitate batzuen berri duenean, jarduteko dituen aukerak alde batera uztea edo apaltzea, ez eta dagozkion legezko betebeharrak jaramonik ez egitea ere.





Baina bai aurreko jarduketekin koherentea izatea eta bat etortzea, eragindako pertsonen hartutako erabakiak modu arrazoituan jakinarazi eta azaltzea; bai eta protokolo egokiak aplikatzea eta administrazio-prozeduran jardutea, aldi berean dauden eskubide eta interes guztiak bermatze aldera. Era berean, jardueren proportzionaltasuna eta helarazitako informazioa gauzatzen ari den administrazio-prozeduraren planteamendura behar bezala egokitzen dela ziurtatu behar da.

2. Hezkuntza Sailaren esku-hartzeak, erakunde honen iritziz, ezaugarri horietatik aldentzen diren elementuak ditu, Arartekoak administrazio horri behin eta berriz zuzendu dizkion idatziek aurreratu izan duten bezala.

Zentzu horretan, nolabaiteko kontraesana ikusten da Langileriaren Kudeaketa arduradunak kexagileari jakinarazi zionean bere lekukotza izapidetzeko beharrezkoa zela idatzi formal bat, non bere identifikazio-datuak jasoko baitziren; hala ere, kexagileak ez zuen idatzirik bidali eta ez zuen bestelako berririk eman, eta posta elektronikoa salaketa bat balitz bezala izapidetu zen.

Erakunde horrentzat bereziki garrantzitsua zen mezua kontu pribatu batetik bidali izana, eta, beraz, mezu hori bidaltzen zuela zioen pertsonaren nortasuna egiaztatu barik geratu izana. Hori dela eta, salaketa idatzi bat eskatzea edo, gutxienez, postaren egilea identifikatzea eta derrigorrez bete beharreko eginbideak dira, horren ibilbidea dekretatu aurretik.

Kexa-espeditatea aztertu ahal izateko, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen jakitea zergatik aldatu zuen hezkuntza-administrazioak Langileriaren Kudeaketa arduradunak kexagileari adierazitako irizpidea, eta zergatik erabaki zuen posta elektronikoa izapidetzea, bai eta zergatik ez zitzaion jakinarazi irizpidea aldatu zela eta posta izapidetu zela.

Erakunde honek behin baino gehiagotan bidalitako eskaeretan informazio hori eskatu zen, baina emandako erantzunetan ez zen arrazoirik ematen.

3. Erakunde honek hezkuntza-administrazioaren arreta piztu zuen beste elementu bat izan zen Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidali zuen idatzian kexa sustatu zuen pertsonaren datu pertsonalak jaso zirela, gehienez bi aldiz.

Hain zuzen ere, Arartekoaren idatzietan adierazten zen ezen, horren justifikaziorik aurkeztu ezean, erakunde honek uste zuela ikastetxe batean balizko irregulartasun batzuk ikertzeko eta kontrolatzeko jarduketa gauzatzeko ez zela beharrezkoa horien berri eman zuen pertsonaren nortasuna zabaltea; Bizkaiko lurralde-ordezkariek iritzi hori partekatzen du, hark bere txostenean aldarrikatutakoaren arabera.

Baina, horretaz gain, erakunde honentzat argi zegoen datu sinple horiek irakurtzeak nahikoa birtualtasun zuela ikastetxeko lan-giroa nabarmen





nahasteko, dokumentua ikastetxe horretako irakasleen artean banatuz gero, gertatu zen bezala. Eta inguruabar hori nahikoa zen, berez, prozedura honen izapidetzean parte hartu zuten pertsona guztiek arreta handiz jardun zezaten dokumentuak egin eta zaintzean eta egoki iritzitako eginbideak egitean.

Hezkuntza Sailaren erantzunek ere ez zuten adierazi zergatik jaso ziren identifikazio-datuak, ez eta erabaki hori eragin zezakeen argudio juridikoa ere.

4. Bestalde, Arartekoak jakin nahi zuen Hezkuntza Ikuskaritzak zer jarduketa mota egin zituen eta nolakoak izan ziren, prozedura nola izapidetu zen eta kexagileak zer posiziotan egon behar zuen baloratu ahal izateko.

Hori dela eta, bereizi egiten zen, batetik, 39/2015 Legearen 58. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz salaketa baten ondorioz administrazioak ofizioz irekitako prozedura zehatzetako egitateak ziren, edo, bestetik, arau horren 55. artikuluan aipatutako informazioko edo aurretiazko jarduketetako aldi baten barruan sartzen ziren.

Erakunde honek eskuratu ahal izan duen dokumentazioaren arabera, izapidetzearen bilakaeran ezin da zalantzarik gabeko erantzunik lortu.

Izan ere, nahiz eta Langileriaren Kudeaketako zuzendariak kexagileak aurkeztutako kexari emandako erantzunean alegatu hasierako mezu elektronikoak salaketa gisa tratatzeko datu guztiak jasotzen zituela, idatzi horrek berak argitzen zuen salatutako egitateak egiazkoak zirela egiaztatzeko jarduketak hasi zirela. Idatzi horren amaieran, gainera, oro har eta zehaztasun handiagorik gabe, baieztatzen zen Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzak dagozkion jarduketak egingo zituela, arauak urratu ditzaketen egoerak egiaztatzeari dagokionez, eta ikastetxeko arduradunei eskatu zitzaizela beren antolamendua eta funtzionamendua indarreko araudira egokitu zezatela.

Administrazio-izapidetzearen oinarri izan ziren idatziek ez zuten esku-hartzearen izaera adierazi, eta ez zuten adierazi ofiziozko prozedura bat hasi zen edo aurretiazko ikerketa bat zen. Era berean, ez da ikusten alderdi horren berriazko erreferentziarik Hezkuntzako Ikuskaritzak horretarako idatzi zituen txostenetan.

Bestalde, Arartekoak bidalitako eskaerei Hezkuntza Sailak emandako azken erantzunean bi aukerak jasotzen dira; horietako bat bera ere zehaztu gabe.

5. Hala ere, erakunde hau ez dator bat hezkuntza-administrazioaren adierazpenetatik ondorioztatzen den posta elektronikoaren kalifikazioarekin, hau da, jarduerak salaketa baten ondorioz ofizioz hasitako prozedura baten barruan sar daitezkeela.

Era horretan, egia bada ere mezu elektroniko horretan idatzi zuen pertsonaren ustez irregulartasunak izan ditzaketen hainbat egoera aipatzen direla, ezin da





ahaztu gogoeta horien 2. atalean aipaturikoa, hau da, mezu hori kontu pertsonal ez-korporatibo batetik bidali zela, eta ez zuela sinadurarik; hortaz, ez zegoen guztiz argi nor aurkeztu zuen, eta, beraz, nahitaezkoa zen alde aurretik jarduera hori egiaztatzea, are gehiago aurreikus zitekeenean pertsona horren nortasunaren garrantziak gatazka-egoerak sortuko zituela.

Bestalde, kontuan hartu behar da postako mezua hitzordua eskatzeko zela, Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzako arduradunekin elkarrizketa bat izateko, eta, bertan, eskaera egin zuen pertsonaren ustez irregulartasunak izan ditzaketen hainbat gertakariri heltzeko. Gertakari horien enuntziatu generikoa baino ez zen agertzen, gehiago sakondu gabe.

Hala, Hezkuntza Ikuskaritzak berak posta elektronikoan soilik adierazitako gertakari buruz egindako txostenetan behin eta berriz aipatzen dute ez zituela irregulartasunak zehazten, ez eta ikerketak bideratzeko datu osagarriak ematen ere, nahiz eta, Hezkuntza Ikuskaritzak berak ohartarazi duenez, egindako kudeaketek zenbait ondorio ateratzea eta hainbat proposamen egitea ahalbidetu zuten.

Hasiera batean, hezkuntza-administrazioak mezu elektronikoa modu berean ulertzen zuela zirudien; izan ere, bidaltzaileari gertaerak zehaztu zezala eskatu zion eta bere identifikazioa jasotzen zuen idatzi bat egin zezala, baina hark ez zuen egin, jarduera horrek ikastetxeko gainerako langileei ekar diezazkiekeen ondorioen beldur baitzen, eta hasierako mezu hori izapidetuko ez zutelakoan. Beraz, ondoriozta zitekeen ez zela bere borondatea salaketa bat jartzea pertsona arduradunekin bilera bat egin aurretik.

Langileriaren Kudeaketako zuzendariak Bizkaiko Hezkuntzako lurralde-ordetzariari bidalitako idatzia egoera berean dagoela dirudi, izan ere, bere baldintzen arabera, horiek helarazi baitzizkion *“behar diren eginbideak egiteko eta adierazpen horiek ,(...) egia diren ikertzeko”*

Nolanahi ere, erakunde honetan ez dago jasota hezkuntza-administrazioak administrazio-prozedura bat ofizios hasteko erabakirik hartu zuenik salaketa baten ondorioz, 39/2015 Legearen 58. artikuluan, oro har, eta testu horren beraren 64. artikuluan, zehapen-prozedurei dagokienez, aurreikusten duten bezala. Ezin da ahaztu, halaber, diziplina-erantzukizunari eta prozedura-arau sektorialak aplikatzeari buruzko egitateen kasuan, prozedura hasi izana salatzaileari jakinarazi beharko litzaiokeela.

Hori guztia aztertuta, pentsatzekoa da alde aurreko ikerketa-jarduera bat zela; eta, beraz, gorago aipatutako inguruabarrak kontuan hartuta, jarduera horren garapenak ez zuen inola ere eskatzen posta elektronikoan agertzen ziren datu pertsonalak islatzea.

Hala adierazi zen gure eskaeretan, eta ondorio horren baldintza zen aipamen hori beharrezkoa zela interpretatzea ahalbidetuko lukeen justifikazio egoki bat





aurkeztu ahalko litzatekeela. Justifikazio hori ez da jasotzen Hezkuntza Saitetik igorritako erantzunetan.

6. Arartekoa jakitun da araudiak hezkuntza-jarduera gainbegiratzeari eta kontrolatzeari dagokionez eta aplikatu beharreko araudia betetzeari dagokionez, edo aholkularitza emateari eta txostenak egiteari dagokionez Hezkuntza Ikuskaritzari esleitzen dizkion ahalmen eta funtzioez ⁴.

Hala, erakunde honek kexa-espeditente honetan bidalitako idatziek ez dute inolako eragozpenik jarri Hezkuntza Ikuskaritzak egoera egiaztatzeko eta aztertzeko funtzioak bete zituelako, ondorio horietarako hezkuntza-administrazioko arduradunek egindako enkarguaren ondorioz.

Aitzitik, Arartekoak bidalitako eskaeretan behin eta berriz adierazi diren jarduketan izaera zehazteko interesa, jarduketa horiek txertatuta egon behar ziren prozedurari buruzkoa zen, ebazpen honen aurreko ataletan azaltzen den bezala, eta horrek ez zuen zalantzan jartzen Hezkuntza Ikuskaritzak horiek gauzatzeko duen gaitasuna.

7. Azkenik, erakunde honek Hezkuntza Sailari adierazi zion funtsezkotzat jotzen zuela zehaztea zer ibilbide egin zuen Langileriaren Kudeaketako zuzendariak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzara bidali zuen idatziak, eta zergatik amaitu zuen eraginpeko ikastetxeko irakasleen eskuetan: ikerketan parte hartzen zuen pertsonetako batek eman zion, berariaz eskatu zuen zehapen-prozedura baten edo beste mota bateko prozedura baten administrazio-espeditenteko kide gisa edo, azken batean, beste arrazoi bati erantzun zion.

Erakunde horren iritziz, datu hori ezagutzea garrantzitsua zen kexa hori tratatzeko, eta, horrez gain, hala badagokio, eta araudiaren aurkako jokabidea izan bada, dagokion erantzukizuna eskatu ahal izateko, eta Hezkuntza Sailak berak neurri egokiak har zitzan, etorkizunean antzeko gertaerak berriro gerta ez zitezen.

Aurkeztutako dokumentaziotik, erakunde honek ezin du ziurtatu hezkuntza-administrazioak egindako ikerketa-lana nahikoa izan denik, ez eta dauden aukera guztiak agortu dituenik ere.

Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak ziurtatu du jarduketetan ardura eta isiltasuna izan zirela nagusi, baina ez du azaldu nola lortu duen ondorio hori, jarduketetan parte hartu zuten hainbat pertsona edo organok egindako baieztapenak berresteaz harago: alde batetik, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzarena, zeinak adierazten baitu espeditentean ez dagoela jasota idatzia inori eman zaionik, eta, bestetik, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena

⁴ Horri dagokionez, aipatzekoak dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 151. artikulua eta hurrengoak, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 25. artikulua, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 2. artikulua.





egin zuen pertsonarena; hark dio ez diola idatzia entregatu ikastetxeko zuzendaritzari.

Zalantzarik gabe, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eta Hezkuntza Ikuskaritzak ezin dute deskribatu Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritzaren dokumentuaren ibilbide osoa, jatorritik dagokion ikastetxeko irakasleen klaustroan agertu arte.

Hala ere, erakunde honen iritziz, Hezkuntza Sailari oro har eska dakioken jardura da, administrazio horrek administrazio-prozedurak ezarri eta garatzen baititu, eta, beraz, prozedura horiek nola izapidetzen diren, dokumentuak zein pertsona, organo eta erregistrotatik igarotzen diren eta euskarri gisa erabiltzen dituzten tresna informatikoetarako sarbideak zein diren zehazteko gai izan behar baitu, eta, gainera, protokoloak eta mekanismoak izan behar ditu, gai guztiak izapidetzean, pertsonen eskubideak erabat errespetatzen direla bermatzeko.

Hala ere, espediente honen inguruan egindako kudeaketa guztien ondoren, Arartekoak ez du kontuan hartzen idatziaren ibilbide osoa eta zehatza, nortzuek eskuratu zuten, edo zein euskarritan bidali zuten organo batetik beste organo batera. Hala ere, agerikoa da deskribatutakoak bezalako gertaera batzuei buruzko ondorio arrazoitu bat atera ahal izateko, zeinetan datu pertsonalak eta informazio sentikorra dituen dokumentu bat prozeduratik kanpoko pertsona batzuen esku azaltzen den, beharrezkoa da administrazio-espedienteari kontsulta egitea baino esanguratsuagoa den ikerketa-jarduketa bat garatea.

Horrelako gertaera garrantzitsu baten aurrean, Arartekoak uste du hezkuntza-administrazioak eskura zituen baliabide guztiak erabili behar zituela gertatutakoaren jarraipen zorrotza egiteko eta hori gertatu zen bidea eta unea zein izan zen jakiten saiatzeko.

Hala ere, erakunde honek eskuratu duen dokumentazioa ikusita, Arartekoak ezin du ziurtatu Hezkuntza Sailak alderdi horretan egindako esku-hartzeak ezaugarri horiei erantzun dienik.

8. Ebazpen honetan aztertutako kexa-espedientea eragin duten antzeko egoeren tratamendua izan dute hizpide Estatuko eta Europako zenbait instantziek; izan ere, askotariko tresnen bitartez, jarduteko prozedurak garatu dituzte, balizko arau-hausteei buruzko informazioa bideratzeko eta izapidetzeko, eta, era berean, informatzaileak babesteko neurriak ere garatu dituzte, horien berri eman izanaren ondorioz errepresaliarik jasan ez dezaten.

Tresna horietan aurreikusitako funtsezko alderdietako bat, hain zuzen ere, informatzailearen datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta erreserba mantentzea da.





Hala, gaiaren azterketa orientatzeko gida gisa eta aipatzen diren aplikazio-eremuak kontuan hartuta, honako adibide hauek aipa daitezke: informatzaileak babesteari buruzko CM/Rec (2014) 7 Gomendioa, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onartua 2014ko apirilaren 30ean, edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1937 (EB) Zuzentaraua, 2019ko urriaren 23koa, Europar Batasuneko Zuzenbideko arau-hausteen berri ematen duten pertsonen babesari buruzkoa; horren barne-zuzenbiderako transposizioa egiteko epea 2021eko abenduaren 17an amaituko da.

Era berean, gai horri buruzko antzeko xedapenak agertzen dira honako arau hauetan, esate baterako: Gaztela eta Leongo 2/2016 Lege autonomikoa, azaroaren 11koa, Administrazio Publikoaren aurkako delituekin zerikusia duten gertaerei buruz Administrazio Autonomikoak jasotzen dituen informazioak bideratzeko jarduerak arautzen dituen eta informatzaileen bermeak ezartzen dituen, edo Valentziako 11/2016 Lege autonomikoa, azaroaren 28koa, Iruzuraren eta Ustelkeriaren aurkako Prebentzio eta Borrokarako Agentziarena.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Iker dezala zergatik amaitu zuen datu pertsonalak zituen idatzi batek garatutako administrazio-prozeduratik kanpoko pertsonen esku, azter ditzala bere prozedurak eta jar ditzala abian antzeko egoerak gerta ez daitezen beharrezkoak diren protokoloak eta tresnak.

